Elikadura burujabetzarako plana

2025-2027



elikadura
hernani burujabe

Hernaniko
Udala

herrilur
ELKARREKIN GOXO HAZI

Henase
HERNANIKO NEKAZARI
ETA ABELTZAINEN
SUSTAPENERAKO ELKARTEA

aurkibidea


hernani burujabe 4
elikadura plana 5
- eragileak 6
- gobernu organoak 6
- lan ildoak eta helburu orokorrak 7
- 2025 ekintza plana, aurrekontuak eta adierazleak 10

hernani burujabe

Hernani burujabe herri proiektua da, erakunde publiko, ehun ekonomiko eta ehun herritarrak parte hartzen dutelarik.

Bi helburu nagusi ditu:

- sakontze demokratikoa: tokiko eredu konplexu eta partekatua sustatzea.
- tokiko garapen burujabea: beharrezkoak diren sektore ekonomikoen plangintza eta egikaritze partekatua burutzea, herritar guztien ongizatea bermatzeko.



elikadura plana

Planteatzen dugun estrategiak sektorearen kate osoan eragiteko bokazioa du: ekoizpenean, transformazioan, banaketan eta kontsumoan.

Elikadura subirautzaren bidean, aliatu estrategiko garrantzitsuak ditugu, besteak beste ekoizleak, merkatariak edota kontsumitzaileak.

Lurrak	Ekoizpena	Transformazioa	Banaketa Kontsumoa
Lurren publifikazioa Gerriko agroekologikoa	Ekoizleen elkartea Nekazaritza eskola	Transformazio zentroa	Kontsumo elkartea HernaniKUA Banaketa zerbitzua

eragileak

Erakunde publikoak	**UDALA** Tokiko garapen saila
Ehun ekonomikoa [Ekoizleak eta transformatzaileak]	**HENASE** Ekoizleen elkartea **Bertatik elikatuz** Transformazio gunea
Herritarrak [Kontsumitzaileak]	**HERRILUR** Kontsumo elkartea

gobernu organoak

	Azalpena	Funtzionamendua	Partaideak
Elikadura mahaia			
Burujabetzen foroa			
Burujabetzen kontseilua			

Ian ildoak eta helburu orokorrak

Lurrak – Gerriko agroekologikoa

Lurren publifikazioa

Elikadura subirautzaren bidean, ezinbestekoa da Hernanin ekoizten diren elikagaien kopurua handitzea.
Horretarako, baliabideak (lurrak eta instalazioak) eta nekazari berrientzako formakuntza eta instalazio prozesuak bermatu behar dira.
Zentzu honetan, lurrak erosi eta nekazal ustiapen berriak martxan jartzea planteatzen da, Hernani inguruan, nekazaritza bideratuko den gerriko agroekologikoa sortuz.

Gerriko agroekologikoa

Gerriko agroekologikoan gainera bestelako jarduerak plantetatuko dira sentsibilizazio eta formakuntzaren ildoaren baitan (baratza eskolak, hitzaldiak, tailerrak). Horretarako azpiegiturak egotea aurreikusten da etorkizunean.

Nekazaritzaren sustapena

HENASE – Ekoizleen elkartea

Hernanik duen gaitasun produktiboa handitzeko ezinbestekoa da nekazal ustiapen berriak martxan jartzea eta zentzu horretan ezinbestekoa nekazari berriak formatu eta etxaldeak martxan jartzeko baliabideak eskaintzea.
Nekazarien eskolaren egitasmoak hainbat jarduera eskaintzen ditu:
- sektorean murgildu nahi duten pertsonentzako formakuntza
- Hernaniko nekazal etxaldeetan praktikaldiak
- Ekoizleentzako aholkularitza zerbitzua.

Gainera, nekazararitzak inserzio sozio-laboralerako aukera paregabea eskaintzen du eta zentzu horretan lan egitea planteatzen da.

HENASE

Transformazioa

Bertatik elikatuz – Transformazio zentroa

Transformazio zentroa edo sukalde zentralak bi lan ildo izango ditu:
- nekazal produktuen transformazioa eta komertzializazioa: kasu gehinetan ekoizleek produktua trasformazio zentroari saltzea aurreikusten bada ere, produktu transformatua “berreskuratzeko” (ekoizleak berak komertzializatu dezan) aukera egotea beharrezkoa ikusten da;
- sukalde zentrala: enpresa eta norbanakoentzako menua prestatzeko zerbitzua eskainiko du.

Transformazio zentroaren jarduera Hernaniko produktuarekin soilik ez asetzea aurreikusten da beraz gertuko beste produktu batzuetaz hornituko da ere.
Transformazio gunea intserzio enpresak batek kudeatuko du eta laneratze tresna izango da ere.
Sektore osoari zerbitzua emango dio.

Salmenta eta banaketa

Herrilur – Kontsumo elkartea

Herrilur indartu

HernaniKUA

Sektore osoa artikulatuko duen marka sortzea planteatzen da.
Marka honek tokiko produktua identifikatzeko, komerzializatzeko baliagarria litzake eta sentsibilizazio tresna garrantzitsua litzake.

Banaketa sistema

Sektore osoari (ekoizleak, transformatzaileak eta merkatariak) zerbitzua emango dion banaketa sistema ezartzea aurreikusten da.
Banaketa zerbitzu hau modu jasangarrian egitea planteatzen da.

2025 ekintza plana, aurrekontuak eta adierazleak

Lan ildoa / Proiektua	Aurrekontuak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025 helburuak	2025
Orokorra							
Sektorearen dinamizazioa	35000	Mahai sektoriala	Bai	Bai	Bai		
		Emakumeen parte hartzea mahaian	37 %	50 %	57 %		
		Erabiltzen den hizkuntza	Euskara	Euskara	Euskara		
		Plan sektoriala	Bai	Bai	Bai		
		Ekintza plana / Aurrekontuak	Bai	Bai	Bai		
		Adierazleak	Bai	Bai	Bai		
		Burujabetzen foroan parte hartzea	Bai	Bai	Bai		
		Burujabetzen kontseiluan parte hartzea			Bai		
		Planifikazio prozesuan beharrak jaso dira			Bai		
		Planifikazio prozesuan beharrei erantzuteko proiektuak			Bai		
Lurrak - Gerriko agroekologikoa							
Lurren erosketa		Nekazaritzara bideratutako lurren azalera (Ha)	40	58	58		
Karabel plan berezia	30000					Plan bereziaren garapena	
Karabeleko						Karabeleko 2.0 proiektuaren garapena eta publifikazioa	
Nekazaritzaren sustapena							
HENASEren zabalpena		HENASEn dauden ustiaketa kopurua	8	8	8		
		HENASEko langileen kopurua	0	1	1		
Nekazarientzako dirulaguntzak	20000	Ustiaketa kopurua			37		
		Publifikatutako lurrak	0	0	0		
Nekazaritza eskola	75000	Nekazaritza eskolako ikasle kopurua	0	6	9		
Nekazarientzako ekintzailetza zerbitzua		Praktikaldi kopurua	3	5	9		
		Sektorean laneratzeak		2	2		
		Sektoretik kanpoko laneratzeak		3	2		
		Arraigo kopurua		2	1		
		Baseritar / ustiaketa berrien kopurua	0	0	0		
Transformazioa, salmenta eta banaketa							
Transformazio-zentroaren garapena (helduentzako katerin zerbitzua)	50000	Fakturazioa		58000	242198		
		Langile kopurua		6	7		
		Laneratze arrunten kopurua		3	3		
		Intserzio langileen kopurua		4	4		
		Bertako produktuaren erabilpena (Kg)					
		Bertako produktuaren erabilpena (%)			55 %		
Herrilur-en kontsolidazioa		Fakturazioa	118000	212000			
		Langile kopurua	3	2			
		Bazkide kopurua	122	140			
		Bertako produktuaren salmenta (Fakturazioaren %)	13 %	40 %			
						Talde motorearen sorrera	
Banaketa sistema eta auzoetako banaketa puntuak							
HernaniKUA marka eta banaketaren diseinua eta garapena							